

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2023ko martxoa

Sarrerak % 44,2 igo dira Euskal AEko landa-ostatueta 2023ko martxoan

Apartamentu eta aterpetxe turistikoetan sarrerak % 58,7 eta % 24,7 igo dira, hurrenez hurren

Euskal AEko landa-ostatueta, 2023ko martxoan, sarrera-kopurua % 44,2 hazi da, aurreko urteko hil beraren aldean, eta gualdiak % 35,9. Urte arteko hazkunde horiekin, sarrera-kopurua 10.824koa izan da, eta gualdiena 22.116koa martxoan.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Martxoa 2023

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2023/03	m/m-12 (%)	2023/03	m/m-12 (%)	2023/03	2022/03	2023/03	p.p. *	2023/03	p.p. *
EUSKAL AE	10.824	44,2	22.116	35,9	2,04	2,17	18,5	5,8	21,8	5,6
Estatukoak	9.819	49,0	19.762	45,6	2,01	2,06	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.005	9,5	2.354	-12,8	2,34	2,94	-	-	-	-
Araba/Álava	1.741	5,8	3.634	16,7	2,09	1,89	11,9	1,8	14,2	2,4
Estatukoak	1.562	4,2	3.333	19,1	2,13	1,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	179	22,6	301	-4,7	1,68	2,16	-	-	-	-
Bizkaia	2.569	54,4	5.712	57,0	2,22	2,19	17,3	7,1	21,9	8,4
Estatukoak	2.324	49,7	5.235	55,8	2,25	2,16	-	-	-	-
Atzeritarrak	245	118,8	477	70,4	1,95	2,50	-	-	-	-
Gipuzkoa	6.514	55,1	12.770	34,2	1,96	2,27	22,8	7,3	25,9	5,8
Estatukoak	5.933	67,6	11.194	51,0	1,89	2,10	-	-	-	-
Atzeritarrak	581	-12,0	1.576	-25,1	2,71	3,19	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetea izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Apirilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko martxoaren aldean % 9,5 hazi ondoren, atzeritar jatorriko sarrerak Euskal AEko landa-ostatueta 2023ko martxoan erregistratutako sarrera guztien % 9,3 dira. Gualdien kasuan, aldiz, atzeritar jatorrikoak guztizkoaren % 10,6 dira, nahiz eta % 12,8 jaitsi diren 2022ko martxoaren aldean.

Lurraldeen arabera, 2023ko martxoan, sarreren urte arteko igoerak % 55,1 izan dira Gipuzkoan, % 54,4 Bizkaian eta % 5,8 Araban. Gualdiei dagokienez, % 56,3ko hazkundera izan da Bizkaian, % 34,2koa Gipuzkoan eta % 16,7koa Araban.

Euskal AEn, establezimendu-mota horietan, batez besteko egonaldia 2,04 egunekoa izan da martxoan, hau da, 2022ko hil berean batez beste izandako 2,17 eguneko egonaldia baino txikiagoa. Batez besteko egonaldia dagokio bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez

beste ematen duten egunen kopuruari, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldiaren guztizko iraupenari.

Plazen eta logelen okupazio-mailak ehuneko 5,8 eta 5,6 puntu igo dira, hurrenez hurren. Plazen arabera neurtuta, % 18,5ean kokatu dira, eta, logelen arabera neurtuta, % 21,8an.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2023ko martxoan 10.541 sarrera izan dira, eta 39.536 gaualdi. Aurreko urteko martxoaren aldean, sarrerak % 58,7 gehitu dira, eta gaualdiak % 26,8.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten azpian eskainitako ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe horretan sartzen erabilera turistikoko etxebizitzak**, alegia, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Martxoa 2023

f t e Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística



	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamentudunak	
	2023/03	m/m-12 (%)	2023/03	m/m-12 (%)	2023/03	2022/03	2023/03	p.p. *	2023/03	p.p. *
EUSKAL AE	10.541	58,7	39.536	26,8	3,75	4,69	29,0	1,9	54,0	-4,5
Estatukoak	8.288	62,1	27.646	27,8	3,34	4,23	-	-	-	-
Atzerriarrak	2.253	47,2	11.891	24,5	5,28	6,24	-	-	-	-
Araba/Álava	1.537	144,6	7.243	9,7	4,71	10,51	22,5	2,3	50,6	-13,6
Estatukoak	1.399	147,8	4.980	2,8	3,56	8,58	-	-	-	-
Atzerriarrak	138	116,2	2.263	28,9	16,41	27,53	-	-	-	-
Bizkaia	6.182	40,9	13.832	45,8	2,24	2,16	24,9	2,7	34,5	-3,8
Estatukoak	4.820	45,8	10.118	58,2	2,10	1,93	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.362	26,0	3.715	20,0	2,73	2,86	-	-	-	-
Gipuzkoa	2.823	73,4	18.460	22,3	6,54	9,27	38,0	-0,3	72,9	4,2
Estatukoak	2.069	66,7	12.548	20,7	6,07	8,37	-	-	-	-
Atzerriarrak	754	95,1	5.913	25,9	7,84	12,15	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bate berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldatuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bate berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Apirilaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 21,4 eta gaualdien guztizkoaren % 30,1 atzeritar jatorriko bisitariei dagokie, 2023ko martxoan urte arteko % 47,2ko eta % 24,5eko hazkundeak izan ondoren, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,75 egunekoa izan da 2023ko martxoan, 2022ko martxoan baino txikiagoa, noiz 4,69 egunekoa izan baitzen Euskal AE osoan. Bizkaian, establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,24 egunekoa izan da, 4,71 egunekoa Araban eta 6,54 egunekoa Gipuzkoan.

Plazen okupazio-maila % 29,0ra iritsi da Euskal AEn, ehuneko 1,9 puntu igo ondoren 2022ko martxoaren aldean. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila, aldiz, ehuneko 4,5 puntu jaitsi da, % 54,0ra iritsita.

Euskal AEko aterpetxe turistikoei dagokienez (Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legean definituta daude, eta aurreko hilean hasi ziren datuak argitaratzen), 2023ko martxoan % 24,7ko urte arteko gehikuntza izan dute sarrerek; guztira 13.548 izan dira, eta 24.083 gualdi eragin dituzte. Bizkaian 11.690 gau igaro dituzte bidaiariek; Gipuzkoan 11.396 gau eta, azkenik, Araban 997 gau igaro dituzte.

Ostatu-mota horretako batez besteko egonaldia 1,78 egunekoa izan da 2023ko martxoan Euskal AEn guztira, eta plazakako okupazio-maila, urte arteko % 10,5eko igoeraren ondoren, % 26,6ra iritsi da.

Informazio-oharra

Hilabete honetan, ETHIren erantzun-tasa % **93,2koa** izan da Landa-ostatuetan, % **85,2koa** Apartamentu turistikoetan eta % **86,1ekoa** Aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62